



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN

GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE GRADO E INNOVACIÓN EDUCATIVA

## i3 Laborategia Hezkuntza Berrikuntzarako proiektuen alderdi etikoak



Gomendioen dokumentua  
2023KO EKAINA

Gizakiekin lotutako Ikerketarako Etika Batzordea (GIEB)

# i3 Laborategia Hezkuntza Berrikuntzarako proiektuen alderdi etikoak

Gomendioen dokumentua

Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin egindako Ikerketen Etika Batzordea  
(GIEB-UPV/EHU)

Gomendio hauek Susi Marcos Muñozek egin ditu, eta Astrid Beascoa, Amaia  
Izaola eta María Blázquezek berrikusi dituzte

2023ko ekaina



## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA .....</b>	<b>2</b>
Siglak eta akronimoak.....	3
Glosarioa .....	4
<b>i3 LABORATEGIA HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUAK (i3HBP).....</b>	<b>5</b>
<b>i3 LABORATEGIA HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO JARDUEREN EBALUAZIOA ETA ZIURTAGIRI ETIKOA .....</b>	<b>6</b>
Baimen Informatuaren Dokumentua (BID).....	6



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## AURKEZPENA

Dokumentu honen bitartez, i3 Laborategia Hezkuntza Berrikuntzarako proiektuen (i3HBP) alderdi etikoari buruzko argibideak eskaini nahi dizkiegu irakasle-ikertzaileei (IRI).

Hezkuntza berrikuntzarako jarduera batek, hasiera batean, ez du ezein Etika Batzorderen ebaluaziorik behar.

Dena den, oso ohikoa izaten da irakasleak ikerketa ikuspegia eman nahi izatea jarduera horri, kongresuetara eramanda edo lortutako emaitzak argitaratuta, jardueran lortutako ezagutzak eta onurak beste irakasle batzuen artean ezagutarazteko. Kasu honetan, irakaslanean lortutako ikasleei buruzko datuak ikerketarako erabiliko dira, ezagutarazi edo argitaratu egin nahi baitira. Horretarako, irakasleak ikasleen baimena lortu behar du haien datuak ikerketan erabiltzeko.

Jarraian, hezkuntza berrikuntzak dakarren ikerketa agertokia deskribatuko dugu, eta zein alderdi izan behar diren kontuan ikasleak babesteko, borondatezkotasunari, pribatutasunari eta konfidentziasunari dagokienez. Ziurtagiri Etikoa lortze aldera, irakasle taldeak zein alderdi deskribatu behar dituen azalduko dugu, ikasleen baimena lortzeko moduari dagokionez.

## Siglak eta akronimoak

**GIEB-UPV/EHU:** UPV/EHUko Gizakiekin, haien datuekin eta haien laginekin lotutako Ikerketarako Etika Batzordea.

**BID:** Baimen Informatuaren Dokumentua.

**DBO:** Datuak Babesteko Ordezkaria

**IRI:** Irakasle-ikertzaileak

**i3HBP:** i3 Laborategia Hezkuntza Berrikuntzarako proiektuak

**DBEO:** Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

## Glosarioa

Dokumentu hau errazago ulertzeko, termino hauen esanahia ematen dugu:

**Baimen Informatuaren Dokumentua.** Dokumentu honek subjektu emaileari eskatzen zaizkion lagin motari eta/edo datu pertsonalei buruzko nahitaezko informazioa idatziz jasotzen du, baita haren baimena edo ukapena berresteko sinadurak ere.

**Errekrutatzea.** Ikerketa proiektu batean azterlanaren subjektu emaile gisa parte hartuko duten pertsonak hartzeko prozesua edo ekintzen multzoa.

**Datu pertsonala.** Identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei buruzko edozein eratako informazio numerikoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo bestelakoa.

**Datu tratamendua ikerketarako:** prozesu horren bitartez, UPV/EHUko Datuak Babesteko ordezkariak (DBO) hezkuntza berrikuntzarako proiektuaren berri izaten du eta honako datu hauek erregistratzen ditu: datuak nork biltzen dituen, noren datuak biltzen diren, nola eta nork tratatuko dituen datuak, lagapenik izango ote den, baita iturri subjektuak norengana jo behar duten eskubideak baliatzeko ere.

### i3 LABORATEGIA HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUAK (i3HBP)

Ikerketa jardueraren kasu oso berezia da; UPV/EHUko ikasleek parte hartzen dute, eta ikasturtean lortutako datuak (testak, nota akademikoak, focus group-en grabazioak, egindako testuak eta abar) erabiltzeko baimena ematen dute, irakaskuntzaz bestelako helburu baterako, hau da, **ikerketarako edo emaitzak argitaratzeko**. **i3 Laborategia Hezkuntza Berrikuntzarako proiektuez** ari gara.

Gomendio orokorra zera da, beste ikasketa mota batzuetako subjektuek bezala, ikasleek ere beren datuak **askatasunez eta borondatez** lagatzeko aukera izatea, HBP baterako erabil ditzaten eta irakasgaiaren irakaslea izanik arduradun. Nolanahi ere, saihestu egingo da irakasleen eta ikasleen arteko harreman bertikalak eragindako betebeharrak –benetakoa edo hautemandakoa–, eragin bidegabea, eta ez da sustatu behar atsegin emateko edo balizko onura akademikoa lortzeko nahiak eragindako parte-hartzerik. Era berean, parte hartzea edo datuak lagatzeko baimena eskatzeko modua zehaztu behar da, gainerako ikasleen aurrean **konfidentzialtasuna eta pribatutasuna** zainduta (ikasleek ez dute zertan jakin gainerako ikasleek parte hartzen/lagatzen ote duten ala ez).

HBP batean, **ikasleei** honako datu hauek **erabiltzeko baimena** eskatu dakieke:

1. Zuzeneko trazabilitatea duten datuak, hau da, dokumentu guztiek dituzte egilea identifikatzeko moduko datuak.
2. Datu kodetuak, hau da, ikasle bakoitzak kode bat egiten du, eta berak bakarrik du horren berri, baina ikasgelan egiten duen guztia identifikatzeko aukera ematen du. Kode horri esker, pertsona berak betetako dokumentu guztien trazabilitatea lor dezake hirugarren batek.

Bi kasuak etikoki zuzenak badira ere, GIEB-UPV/EHUK **datu kodetuen** tratamendua gomendatzen du.

Egoera idealean, datuak HBP batean erabiltzeko, baimen informatuaren dokumentua (BID) **aktak sinatu ondoren** eskatu behar da. Errealitateak erakutsi digu, ordea, ordurako askotan ikasleek ez dutela inolako loturarik unibertsitatearekin; beraz, oso zaila izaten da baimena lortzea. Horregatik, eta lehenago eskatzea komeni denez, datuen erabilera baimentzeko eskaera hori eskolako lehen asteetan egitea gomendatzen du GIEB-UPV/EHUK, hau da, hezkuntza berrikuntza zertan datzan azaldu, ikasleei beren datuak lagatzeak zer dakarkien azaldu, zalantzak argitu eta BIDA eman. Dokumentu hori gelako ordezkariak edo horren kargu egiten den beste ikasle batek jaso dezake. Pertsona horrek BID guztiak jasoko ditu, bai beteta eta sinatuta daudenak, bai hutsik daudenak.

Pertsona hori arduratuko da bildutako BID guztiak gutun-azal bakar batean gordetzeaz, itxita eta itxiduran sinatuta, eta gutun-azal hori irakasleei emango die, ikasturtea amaitu eta aktak sinatu ondoren. Hartara, datuen erabilera baimendu duten pertsonen datuak HBPan txertatu ahal izango dira, tratatzeko, eta, aldiz, erabilera baimendu ez duten pertsonen datuak kendu egin beharko dira.

## i3 LABORATEGIA HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO JARDUEREN EBALUAZIOA ETA ZIURTAGIRI ETIKOA

i3HBPek ez dute GIEBen aldeko txostenik behar ezarpenerako. Baina **Ziurtagiri Etikoa** behar dute.

Eskaera hori [HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUETARAKO ETIKA ZERBITZUAREN ZIURTAGIRIA ESKATZEKO FORMULARIOA](#) erabilita egiten da eta, bertan, ikertaldeko kideak, proiektuaren helburuak eta laburpena aipatzeaz gain, erreklutamendu prozesua nola burutuko den deskribatu behar da. Hezkuntza berrikuntzarako proiektuaren barruan datuen erabilera baimentzen duten ikasleek sinatutako BID eredu ere erantsiko da.

Eskaera egin eta Etika Zerbitzuak berrikusi ondoren, ziurtagiri bat emango da, eta GIEB-UPV/EHUren hurrengo bileran berretsiko da.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, i3HBPak egiteko ezinbestekoa da datuak ikerketarako tratatuko direla adieraztea UPV/EHUko datuak babesteko ordezkariaren (DBO) aurrean. <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/babestu>.

Datu tratamenduaren adierazpena egiteko, urrats hauei jarraitu behar zaie:

1. Hezkuntza berrikuntzarako datuen tratamendua erregistratzeko formularioaren 1. atala betetzea, datuen barne-arduraduna identifikatuta. Pdf hori Etika Zerbitzuaren webgunean lor daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/ceid/home>. HEZKUNTZA BERRIKUNTZA atalean.
2. Dokumentu hori pdf formatuan bidali behar da helbide honetara: [dpd@ehu.eus](mailto:dpd@ehu.eus), eta gaiari honako hau idatzi behar da: HEZKUNTZA BERRIKUNTZA.
3. DBOak arduradunari igorriko dizkio datuen tratamenduaren kodea eta datuak babesteko klausula; azken hori BIDari atxiki behar zaio.

### Baimen Informatuaren Dokumentua (BID).

Baimen informatua dokumentu bat da, eta helburu hauek ditu:

- Ikasleei ikerketaren asmoari, arriskuei eta onurei buruzko informazioa ematea.
- Ziurtatzea ikasleek informazio hori ulertu dutela eta borondatez erabaki dezaketela beren datuak lagatzeko baimena eman nahi duten; datuak ikasturtean zehar lortzen dira, i3HBP baterako.
- Adieraztea nahi dutenean ikerketa utz dezaketela, inolako ondoriorik gabe.

Informazio hori ikasleekiko etengabeko komunikazio prozesu batean eman beharko da, zalantzak argituta, eta uneren batean BID bat betetzeko eskatuko zaie. Dokumentu hori lantzean, honako alderdi hauek izan behar dira kontuan:

- Idazki bidez egin behar da, eta ikerketa bakoitzerako berariazkoa da.
- Ez da oso luzea izango, ezta konplexua ere; ez dira erabiliko hitz teknikoak, esaldi oso luzeak edo letra oso txikia.
- Ez du eduki behar informazio iruzurti edo nahasgarria.
- Adingabeen kasuan, 18 urtera arte, BIDa lege ordezkariak (gurasoak/tutoreak) sinatuko dute, ikaslea ados egonda.



BDIa prestatzeko honako gida honi jarraitzea gomendatzen dugu:

### [LEHEN ZATIA: Arduradunaren eta proiektuaren aurkezpena:](#)

#### ➤ **Orokorra**

Dokumentuan UPV/EHU ERAKUNDEAREN LOGOA jarriko da.

BERTSIOA ETA DATA: BIDaren orrialde guztiek azken bertsioaren zenbakia eta data izango dute.

#### ➤ **Ikertzaile arduraduna identifikatzea**

Izen-abizenak

Saila eta ikastegia

Harremanetarako datuak: posta helbidea eta erakundearen telefono zenbakia.

#### ➤ **HBParen deskribapena**

Proiektua identifikatzea: Izenburua eta finantzaketa.

HBParen laburpen motz bat, helburuak eta espero diren onurak, eta ikerketan erabiltzeko zer datu mota bilduko diren.

### [BIGARREN ZATIA: Klausulak](#)

#### ➤ **Borondatezkotasun klausula**

Jakinarazi behar da parte hartzea borondatezkoa dela eta ezetz esateak ez dakarrela inolako kalterik edo kontrako neuririk.

#### ➤ **Errebokatzeko klausula**

Jakinarazi behar da parte-hartzaileak noiznahi erreboka dezakeela bere datuak irakaskuntzaz bestelako xede baterako erabiltzeko baimena, inolako ondorio pertsonalik izan gabe eta azalpenik eman behar izan gabe; eta errebokazioa gauzatzeko norekin jarri behar duen harremanetan deskribatu behar da (arduraduna eta harekin harremanetan jartzeko helbidea, erakundekoa).

#### ➤ **Datuak babesteko klausula**

Klausula hori UPV/EHUko DBOak emango dio datuen tratamendua eskatu duen pertsonari, datuen tratamenduaren adierazpenaren erregistro zenbakiarekin batera.

Klausulan honako informazio hau azalduko da: zer datu jasoko diren, nor izango den horien arduraduna, zenbat denboraz gordeko diren, nola legitimatu den tratamendua eta zer lagapen edo transferentzia egon daitezkeen, halakorik balego. Era berean, sartzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramateko eta ahazteko eskubideak jakinaraziko dira, baita horien xedea ere: Suntsipena-Anonimotasuna-Lagapena-Kontserbazioa gero erabiltzeko-Beste xede bat. Datuen tratamenduari buruzko informazio guztia biltzen duen webgunearen helbidea ere adierazi behar da.

### ➤ Doakotasun klausula

Jakinarazi behar da datuen lagapena altruista dela, eta, beraz, ez dela ordainsaririk jasoko.

### ➤ Ikerketaren emaitzak eskuratzeari buruzko klausula

Jakinarazi behar da ikerketaren emaitzak ezagutzeko aukera dagoela eta, horretarako, ikerketaren arduradunarekin harremanetan jarri beharko dutela; arduradunaren helbide elektronikoa (erakundekoa) zehaztu behar da.

### [HIRUGARREN ZATIA: Datuen tratamendurako baimen sinadurak.](#)

Informazioa emateaz eta BIDA jasotzeaz arduratuko den pertsonaren identifikazioa, data eta sinadura.

Ikasleak 18 urte baino gehiago dituenen: BIDaren ZURE DATUAK BABESTEAK puntuan deskribatutako baldintzetan bere datu pertsonalak erabiltzea baimentzen duen pertsonaren identifikazioa, data eta sinadura.

Ikasleak 18 urte baino gutxiago dituenen: legezko ordezkariaren eginkizuna betetzen duen pertsonaren (gurasoa/tutorea) identifikazioa, data eta sinadura, eta adingabearen adostasuna, identifikazioa eta sinadura jarrita.

## BID EREDUA

HBPaz arduratzen den irakaslearen izen-abizenak:

Saila:

Ikastegia:

Harremanetarako datuak: helbide elektronikoa/telefono zenbakia: @ehu.eus. 94601.....

Hezkuntza berrikuntzarako proiektuaren izenburua:

Proiektuaren eta helburuan laburpena:

Hezkuntza berrikuntzarako proiekturako bilduko diren datuen deskribapena: Ikasturte osoan jasotako datuak erabiliko dira proiekturako, hau da, ikasturte hasieran eta amaieran egindako aurre testari eta post testari dagozkionak, eta eskoletan modulu bakoitzerako egin diren "ebaluazio" testei dagozkienak; ikasturtean 8 modulu landuko dira.

Testak anonimoak direnez eta Microsoft Forms aplikazioaren bitartez egiten direnez, ikasle bakoitzak bere pasahitza izango du. Horri esker, datuen tratamendua zein ikaslek baimentzen duten jakin ahal izango dugu, alde batetik, eta, bestetik, test anonimo guztiak pertsona berarekin lotu. Pasahitza honela osatuko da, ikasturte osoan gogoratu ahal izateko, bai baimenean, bai test guztietan: 1. abizenaren lehen letra/2. abizenaren lehen letra/NANaren azken hiru digituak/telefono zenbaki pertsonalaren azken zenbakia.

**ADIBIDEA: M (Martínez)-A (Aramburu)-406-2. Kodea: MA4062**



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Kode hori agertuko da BIDEan eta ikasgelan egiten diren test anonimo guztietan.

## Eskubideak

**Borondatezkotasuna:** Parte hartzea borondatezkoa da eta ezetz esateak ez dizu inolako kalterik edo kontrako neurririk ekarriko.

**Doakotasuna:** Ez duzu inolako hobaririk jasoko parte hartzeagatik, ez dirutan, ez akademikoki, baina esparru horretako irakaslan hobetzen lagunduko duzu.

**Errebokazioa:** Zure datuak erabiltzeko baimena erreboka dezakezu, azalpenik eman behar izan gabe, eta horrek ez dizu inolako ondorio pertsonalik ekarriko. Horretarako, "ARDURADUNAREN IZENA"(r)ekin harremanetan jarri beharko duzu eskubide hori baliatzeko; harremanetarako helbide (elektronikoa):

**Datuak babestea:** UPV/EHUko DBOak emango du, datu tratamenduaren eskaera egiten denean.

**Datuen xedea:** Bi aukera daude:

Ikerketa amaitu ondoren, datuak suntsitu egingo dira.

Ikerketa amaitu ondoren, datuak anonimizatu eta gorde egingo dira beste maila batzuekin, beste ikasturte batzuekin, beste gradu batzuekin... konparazioak egin ahal izateko.

Baimena ematen dut  Ez dut baimenik ematen

**Emaitzak eskuratzea:** Proiektu honen emaitza orokorren berri izan nahi baduzu, "ARDURADUNAREN IZENA"(r)ekin harremanetan jarri beharko duzu; harremanetarako helbide (elektronikoa):

**Sinadura eta data:** Leioa, 2023ko uztailaren 17a

Irakaslearen sinadura

Ikaslearen sinadura